# Adierazkari Ekonomiko eta Fiskalak

Bizkaia
ogasun eta finantza saila
departamento de hacienda y finanzas

*2026ko otsailaren 28an*

## Jarduera eta Produkzioa

| | Iturria | Aldia | Azken datua *Bizkaia* | Urtetik urterako aldaketa (%) Bizkaia | Euskadi | Espainia | Urteko aldaketa metatua (%) Bizkaia | Euskadi | Espainia |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| BPG-Bolumen-indize kateatua* | Eustat-INE | 25-III Hiruhil. | 108,5 | 2,5 | 2,3 | 2,8 | 2,2 | 2,2 | 2,9 |
| BPG-Eguneko prezioak (euroak milioitan)* | Eustat-INE | 25-III Hiruhil. | 13.202 | 5,1 | 5,1 | 5,7 | 4,8 | 4,8 | 5,5 |
| IPI-Orokorra zuzenduta | Eustat-INE | 25-abendua | 93,3 | -1,8 | 0,0 | -0,6 | 0,3 | -0,6 | 1,1 |
| IPI-Erauzteko industriak zuzenduta | Eustat-INE | 25-abendua | 64,7 | -2,6 | 2,8 | -13,6 | -3,2 | -6,5 | 5,0 |
| IPI-Manufaktura industriak zuzenduta | Eustat-INE | 25-abendua | 92,6 | -1,1 | 0,2 | -0,1 | -0,3 | -0,7 | 0,6 |
| IPI-Argindarra, Gasa eta Lurruna zuzenduta | Eustat-INE | 25-abendua | 111,5 | -9,2 | -6,8 | 4,0 | 3,7 | 1,5 | 4,5 |
| Argindar kontsumoa guztira (MWh) | Iberdrola | 26-urtarrila | 576.365 | 15,4 | 3,6 | | 15,4 | 3,6 | |
| Argindar konts. guztira, ind. sid. gabe | Iberdrola | 26-urtarrila | 180.229 | 43,5 | 14,1 | | 43,5 | 14,1 | |
| Argindar konts. guztira, eraikuntza (MWh) | Iberdrola | 26-urtarrila | 3.269 | -24,8 | -23,0 | | -24,8 | -23,0 | |
| Argindar konts. guztira, zerbitzuak (MWh) | Iberdrola | 26-urtarrila | 138.574 | -8,2 | -5,4 | | -8,2 | -5,4 | |
| Eraikuntza (euroak milatan) | Seopan | 25-abendua | 10.208 | -29,2 | -8,6 | 30,9 | -37,9 | -11,5 | 14,7 |
| Obra zibila (euroak milatan) | Seopan | 25-abendua | 158.979 | -73,1 | -60,7 | 22,3 | 17,0 | 33,2 | 11,7 |
| Lizitazio ofiziala (euroak milatan) | Seopan | 25-abendua | 169.187 | -72,1 | -56,5 | 25,5 | -1,8 | 15,2 | 13,0 |

* Eustat (Oinarri 2022) / INE (Oinarri 2015)

### BPGren bilakaera bolumenak
Aldiko urtetik urterako ald.%




### BPGren bilakaera hazkunde nominala
Aldiko urtetik urterako ald.%



Bizkaia
ogasun eta finantza saila
departamento de hacienda y finanzas

# Adierazkari Ekonomiko eta Fiskalak

*2026ko otsailaren 28an*

## Barne Eskaria

| | Iturria | Aldia | Azken datua Bizkaia | Urtetik urterako aldaketa (%) Bizkaia | Euskadi | Espainia | Urteko aldaketa metatua (%) Bizkaia | Euskadi | Espainia |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Argindar kontsumoa etxeetan (MWh) | Iberdrola | 26-urtarrila | 144.638 | 5,1 | 6,5 | | 5,1 | 6,5 | |
| Turismoen matrikulazioa | D.G.T. | 26-urtarrila | 1.170 | -3,9 | 2,8 | 2,1 | -3,9 | 2,8 | 2,1 |
| Zama-ibilgailuen matrikulazioa | D.G.T. | 26-urtarrila | 298 | 40,6 | 18,6 | 5,7 | 40,6 | 18,6 | 5,7 |
| Motozikleten matrikulazioa | D.G.T. | 26-urtarrila | 214 | 7,0 | 10,9 | 12,2 | 7,0 | 10,9 | 12,2 |
| Bidaiariak | INE-EOH | 26-urtarrila | 93.547 | 6,3 | 1,1 | 3,0 | 6,3 | 1,1 | 3,0 |
| Estatukoen ostatu-gauak | INE-EOH | 26-urtarrila | 116.766 | 9,6 | 1,2 | 2,5 | 9,6 | 1,2 | 2,5 |
| Atzerritarren ostatu-gauak | INE-EOH | 26-urtarrila | 63.872 | 12,2 | 7,2 | 3,8 | 12,2 | 7,2 | 3,8 |
| Bidaiariak | Eustat- ETR | 26-urtarrila | 96.200 | 7,2 | 0,1 | | 7,2 | 0,1 | |
| Estatukoen ostatu-gauak | Eustat- ETR | 26-urtarrila | 112.558 | 4,9 | -1,8 | | 4,9 | -1,8 | |
| Atzerritarren ostatu-gauak | Eustat- ETR | 26-urtarrila | 65.420 | 15,1 | 2,8 | | 15,1 | 2,8 | |
| Txikizkako merkataritzaren indizea - Eguneko prez. | Eustat-INE | 25-IV Hiruhil. | 137,8 | 3,7 | 4,7 | 5,8 | 4,0 | 4,4 | 4,7 |
| Txikizkako merkataritzaren indizea - Prezio konst. | Eustat-INE | 25-IV Hiruhil. | 126,2 | 2,7 | 3,7 | 4,4 | 2,9 | 3,5 | 4,1 |

Gau-emateak (Eustat)
12 Hileko batezbesteko mugikorraren urtetik urterako ald.%




Turismoen Matrikulazioa
12 Hileko batezbesteko mugikorraren urtetik urterako ald.%




Industria Ibilgailuen Matrikulazioa
12 Hileko batezbesteko mugikorraren urtetik urterako ald.%



# Adierazkari Ekonomiko eta Fiskalak

Bizkaia
ogasun eta finantza saila
departamento de hacienda y finanzas

2026ko otsailaren 28an

## Kanpo Eskaria (euroak milioitan)

| | Iturria | Aldia | Azken datua | Urtetik urterako aldaketa (%) | | | Urteko aldaketa metatua (%) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Bizkaia | Bizkaia | Euskadi | Espainia | Bizkaia | Euskadi | Espainia |
| *Esportazioak guztira* | S.E.C. | 25-abendua | 876,6 | 15,3 | 2,5 | 1,4 | -9,3 | -3,6 | 0,7 |
| Igorpenak EBra, guztira | S.E.C. | 25-abendua | 490,5 | 23,2 | 3,0 | 4,8 | -7,5 | -3,6 | 0,6 |
| Esport. munduko gainerak. guztira | S.E.C. | 25-abendua | 386,1 | 6,6 | 1,9 | -3,0 | -12,4 | -3,6 | 0,9 |
| Energiaz besteko esportazioak | S.E.C. | 25-abendua | 758,8 | 5,6 | -0,8 | 2,6 | -4,6 | -1,6 | 1,8 |
| Energiaz besteko igorpenak EBra | S.E.C. | 25-abendua | 441,4 | 21,5 | 1,9 | 6,4 | -2,5 | -1,6 | 1,5 |
| Energiaz besteko esp. munduko gain. | S.E.C. | 25-abendua | 317,4 | -10,6 | -4,2 | -2,8 | -7,9 | -1,6 | 2,4 |
| *Inportazioak guztira* | S.E.C. | 25-abendua | 1.108,9 | 9,4 | 6,7 | 5,5 | -8,6 | -1,6 | 4,6 |
| Sarrerak EBtik, guztira | S.E.C. | 25-abendua | 340,5 | 16,0 | 2,7 | 10,0 | -3,6 | 2,4 | 6,1 |
| Inport. munduko gainerak. guztira | S.E.C. | 25-abendua | 768,4 | 6,7 | 10,5 | 1,5 | -11,0 | -5,3 | 3,1 |
| Energiaz besteko inportazioak | S.E.C. | 25-abendua | 630,9 | 15,7 | 8,6 | 6,2 | 1,6 | 5,3 | 6,7 |
| Energiaz besteko sarrerak EBtik | S.E.C. | 25-abendua | 322,2 | 22,5 | 4,8 | 11,1 | -2,4 | 3,0 | 6,8 |
| Energiaz besteko inp. munduko gain. | S.E.C. | 25-abendua | 308,7 | 9,4 | 15,0 | 0,7 | 6,3 | 9,4 | 6,5 |
| *Merkataritzako balantzaren saldoa* | S.E.C. | 25-abendua | -232,3 | 8,3 | -22,8 | -35,2 | 6,3 | -17,6 | -41,7 |
| *Energiaz merkataritzako saldoa* | S.E.C. | 25-abendua | -360,1 | 15,5 | 16,5 | -15,3 | 16,0 | 16,2 | 3,8 |
| *Energiaz besteko merkataritzako saldoa* | S.E.C. | 25-abendua | 127,9 | -26,1 | -19,2 | -61,7 | -39,5 | -16,8 | -182,3 |

*S.E.C.: Secretaría de Estado de Comercio - Ministerio de Industria, Comercio y Turismo*

### Esportazioak EZ-Energetikoa

12 Hileko batezbesteko mugikorraren urtetik urterako ald.%




### Inportazioak EZ-Energetikoa

12 Hileko batezbesteko mugikorraren urtetik urterako ald.%



Bizkaia
ogasun eta finantza saila
departamento de hacienda y finanzas

# Adierazkari Ekonomiko eta Fiskalak

*2026ko otsailaren 28an*

| | Iturria | Aldia | Azken datua | Urtetik urterako aldaketa (%) | | | Urteko aldaketa metatua (%) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Bizkaia | Bizkaia | Euskadi | Espainia | Bizkaia | Euskadi | Espainia |
| **Ekonomiaren Finantzaketa** | | | | | | | | | |
| Gordailuak s. pribatuan (euroak milioitan) | B.de España | 25-III Hiruhil. | 46.016 | 0,4 | 0,6 | 5,1 | 0,8 | 0,5 | 4,9 |
| Kredituak s. pribatuan (euroak milioitan) | B.de España | 25-III Hiruhil. | 33.248 | 1,1 | 1,3 | 2,8 | 1,6 | 1,1 | 2,3 |
| Hipotekak (euroak milioitan) | INE | 25-abendua | 221,8 | 18,0 | 29,3 | 29,6 | 24,2 | 25,6 | 28,1 |
| Sortutako merkataritza sozietateak | INE | 25-abendua | 204 | 12,1 | 20,6 | 24,2 | 10,8 | 14,9 | 8,1 |
| Kapital harpidetua (euroak milatan) | INE | 25-abendua | 270.302 | 499,9 | 432,8 | 28,2 | 284,3 | 195,5 | 1,7 |
| Handitutako merkataritza sozietateak | INE | 25-abendua | 59 | -4,8 | -10,3 | 12,0 | 4,7 | -0,9 | 3,0 |
| Kapital harpidetua (euroak milatan) | INE | 25-abendua | 83.743 | 69,4 | 38,2 | -46,2 | 82,2 | 48,5 | -12,2 |
| **Kontsumoko prezioen indizea (KPI)** | | | | | | | | | |
| Orokorra | INE | 26-urtarrila | 100,9 | 2,6 | 2,3 | 2,3 | 2,6 | 2,3 | 2,3 |
| Elikadura eta edari alkoholgabeak | INE | 26-urtarrila | 102,6 | 4,1 | 3,9 | 3,0 | 4,1 | 3,9 | 3,0 |
| Jantziak eta oinetakoak | INE | 26-urtarrila | 90,8 | -1,6 | -3,9 | -1,9 | -1,6 | -3,9 | -1,9 |
| Etxebizitza | INE | 26-urtarrila | 103,2 | 2,4 | 1,6 | 2,7 | 2,4 | 1,6 | 2,7 |
| Garraioa | INE | 26-urtarrila | 99,9 | 0,5 | 0,2 | -0,1 | 0,5 | 0,2 | -0,1 |
| Komunikazioak | INE | 26-urtarrila | 100,1 | -1,0 | -0,8 | -0,1 | -1,0 | -0,8 | -0,1 |
| Aisia eta kultura | INE | 26-urtarrila | 99,1 | 2,5 | 1,8 | 1,9 | 2,5 | 1,8 | 1,9 |

Kredituak
4 Hiruhilekoko batezbesteko mugikorraren urtetik urterako ald.%




Gordailuak
4 Hiruhilekoko batezbesteko mugikorraren urtetik urterako ald.%




Kontsumorako Prezioen Indizea -KPI (O 2025)
Hileko urtetik urterako ald.%



# Adierazkari Ekonomiko eta Fiskalak

Bizkaia
ogasun eta finantza saila
departamento de hacienda y finanzas

*2026ko otsailaren 28an*

## Lan Merkatua

| | Iturria | Aldia | Azken datua Bizkaia | Urtetik urterako aldaketa (%) Bizkaia | Urtetik urterako aldaketa (%) Euskadi | Urtetik urterako aldaketa (%) Espainia | Urteko aldaketa metatua (%) Bizkaia | Urteko aldaketa metatua (%) Euskadi | Urteko aldaketa metatua (%) Espainia |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| > 16 urte biztanleak | Eustat-PRA | 25-IV Hiruhil. | 1.008.800 | 0,8 | 0,9 | | 1,0 | 0,9 | |
| Biztanleria aktiboa | Eustat-PRA | 25-IV Hiruhil. | 556.000 | 0,5 | 0,7 | | 0,3 | 0,2 | |
| Biztanleria landuna | Eustat-PRA | 25-IV Hiruhil. | 517.300 | 1,6 | 1,5 | | 1,5 | 1,3 | |
| Biztanleria langabea | Eustat-PRA | 25-IV Hiruhil. | 38.700 | -12,4 | -10,1 | | -12,6 | -12,9 | |
| Langabezia tasa | Eustat-PRA | 25-IV Hiruhil. | 7,0 | -12,9 | -10,7 | | -12,8 | -13,1 | |
| Langabezia tasa - Emakumeak | Eustat-PRA | 25-IV Hiruhil. | 6,7 | -24,2 | -15,1 | | -18,3 | -13,1 | |
| Langabezia tasa - Gizonak | Eustat-PRA | 25-IV Hiruhil. | 7,2 | 0,3 | -5,6 | | -6,8 | -13,2 | |
| > 16 urte biztanleak | INE-EPA | 25-IV Hiruhil. | 1.019.100 | 0,5 | 0,5 | 1,2 | 0,7 | 0,8 | 1,3 |
| Biztanleria aktiboa | INE-EPA | 25-IV Hiruhil. | 583.900 | 1,4 | 2,2 | 2,0 | 0,4 | 0,3 | 1,7 |
| Biztanleria landuna | INE-EPA | 25-IV Hiruhil. | 536.500 | 3,9 | 2,9 | 2,8 | 1,7 | 1,2 | 2,6 |
| Biztanleria langabea | INE-EPA | 25-IV Hiruhil. | 47.400 | -19,9 | -6,2 | -4,6 | -13,2 | -9,3 | -5,9 |
| Langabezia tasa | INE-EPA | 25-IV Hiruhil. | 8,1 | -21,1 | -8,2 | -6,4 | -13,6 | -9,5 | -7,4 |
| Langabezia tasa - Emakumeak | INE-EPA | 25-IV Hiruhil. | 8,4 | -4,7 | 16,2 | -5,1 | -9,8 | 0,8 | -6,2 |
| Langabezia tasa - Gizonak | INE-EPA | 25-IV Hiruhil. | 7,8 | -33,0 | -27,8 | -8,0 | -16,5 | -17,8 | -8,8 |
| Afiliazioak guztira (hileko batez best.) | Seg.Social | 26-urtarrila | 516.101 | 1,1 | 1,0 | 2,3 | 1,1 | 1,0 | 2,3 |
| Araubide orokorreko afilazioak (hil. bb) | Seg.Social | 26-urtarrila | 417.107 | 1,5 | 1,3 | 2,8 | 1,5 | 1,3 | 2,8 |
| Erregistratutako langabezia | SEPE | 26-urtarrila | 61.025 | -1,2 | -1,1 | -6,2 | -1,2 | -1,1 | -6,2 |
| Erregistratutako langabeziaren tasa | SS & SEPE | 26-urtarrila | 10,5 | -3,0 | -2,7 | -8,2 | -3,0 | -2,7 | -8,2 |

Enpleguaren Bilakaera (Kontabilitate Nazionalaren)
Aldiko urtetik urterako ald.%




Gizarte Segurantzan Afiliazioak - Hileko batez bestekoa
Aldiko urtetik urterako ald.%




Langabezia Tasa PRA eta EPA
Balio absolutuak



# Adierazkari Ekonomiko eta Fiskalak

Bizkaia
ogasun eta finantza saila
departamento de hacienda y finanzas

*2026ko otsailaren 28an*

## Zergen Bidezko Diru-sarrerak (euroak milatan)

| | Iturria | Aldia | Azken datua Bizkaia | Urtetik urterako aldalketa % Bizkaia | Urtetik urterako aldalketa % Ar./Ál.+Gipuz. | Urtetik urterako aldalketa % L.Erkidea* | Urteko aldaketa metatua % Bizkaia | Urteko aldaketa metatua % Ar./Ál.+Gipuz. | Urteko aldaketa metatua % L.Erkidea* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Lanaren etekinen atxik. | DD.FF.-MH | 26-urtarrila | 318.396 | 8,6 | 7,3 | 8,9 | 8,6 | 7,3 | 8,5 |
| Sozietateak | DD.FF.-MH | 26-urtarrila | 13.688 | 9,8 | -387,4 | 80,1 | 9,8 | -387,4 | 5,9 |
| Kapitalaren etekinen atxik. | DD.FF.-MH | 26-urtarrila | 10.268 | 7,1 | 19,0 | -35,6 | 7,1 | 19,0 | 6,7 |
| *Zuzeneko zergak* | DD.FF.-MH | 26-urtarrila | 349.572 | 7,4 | 3,4 | 23,7 | 7,4 | 3,4 | 11,1 |
| BEZ-Diru-bilketa-Kudeaketa propioa | DD.FF.-MH | 26-urtarrila | 21.828 | -64,8 | 23,6 | 24,0 | -64,8 | 23,6 | 9,1 |
| Hidrocarburoak-Diru-bilketa osoa-Kudeaketa propioa | DD.FF.-MH | 26-urtarrila | 5.923 | -67,7 | 2,0 | -2,3 | -67,7 | 2,0 | 1,3 |
| ZZBB-Diru-bilketa osoa-Kudeaketa propioa | DD.FF.-MH | 26-urtarrila | 20.322 | -37,2 | 22,6 | 2,7 | -37,2 | 22,6 | 5,0 |
| *Zeharkako Zerga-Kudeaketa propioa* | DD.FF.-MH | 26-urtarrila | 65.625 | -41,7 | 30,1 | 12,9 | -41,7 | 30,1 | 8,6 |
| *Zerga itunduak-Kudeaketa propioa* | DD.FF.-MH | 26-urtarrila | 419.439 | -5,0 | 113,9 | | -5,0 | 113,9 | |
| *Zerga itunduak-Kudeaketa propioa FFAAen doikuntzaren ond.* | DD.FF.-MH | 26-urtarrila | 382.430 | 1,7 | -26,9 | | 1,7 | -26,9 | |
| *Zerga itunduak* | DD.FF.-MH | 26-urtarrila | 382.430 | 1,7 | -26,9 | 19,2 | 1,7 | -26,9 | 10,0 |

*Datuak diru-bilketa garbiak dira*

** Lurralde Erkideko datuak azarokoak dira*




*Lurralde Historikoen arteko doikuntzak egin aurretik*






## BIZKAIAK JENDAURREAN AURKEZTEN DU EGONALDI TURISTIKOEN GAINEKO ZERGARI BURUZKO FORU ARAUAREN AURREPROIEKTUA

Bizkaiko Foru Aldundiak jendaurrean jarri du, otsailaren 5etik 20ra, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietan Egonaldi Turistikoen gaineko Zerga berria arautzen duen Foru Arauaren aurreproiektua, Bizkaiko udalerrietan derrigorrezkoa izango den tokiko zerga berria.

Jarduera turistikoa elementu garrantzitsua da Bizkaiko ekonomian, lurraldearen garapen ekonomiko eta sozialean eragina duena. Hala ere, egoera jakin batzuetan udalerrietako baliabide publikoen eta ingurumen-baliabideen erabilera intentsiboa eragin dezake.

Testuinguru honetan, eta udalen autonomiaren eta finantza-nahikotasunaren printzipioak errespetatuz, aurreproiektuak nahitaezko toki-zerga berri hau sortzea aurreikusten du.

Egonaldi Turistikoen gaineko Zerga ezartzeak Toki Ogasunei buruzko Foru Araua aldatzea dakar, Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko zerga-sisteman sartzearen ondoreetarako.

Zerga Batzar Nagusiek onartzen dutenean eta Foru Araua BAOn argitaratzen denean jarriko da indarrean eta Bizkaiko udalerrietan ordenantza fiskalak egokitu ondoren edo, edonola ere, sei hilabeteko epean izango ditu ondorioak.

Zergak gaua igarota edo igaro gabe Bizkaiko udalerrietan kokatutako turismo-ostatuko establezimenduetako eta Bizkaiko portuetako bidaia-ontzietako egonaldiak, egun osoen edo zatikien arabera, zergapetzen ditu. Zenbait salbuespen aurreikusten dira, batez ere gizarte-izaerakoak.

Sortzapena turismo-egonaldi bakoitzaren hasieran edo ontziak lurraldeko portu batean geldialdia egiten duen unean sortzen da. Zerga honen zergadunak egonaldi hauek egiten dituzten pertsona fisikoak izango dira.

Zerga-oinarria ezartzeko establezimendu berean era jarraituan egiten den aldi bakoitzari dagozkion egonaldi-unitateen kopurua hartzen da kontuan. Turismo-gurutzaldien kasuan egonaldi-unitatetzat hogeita lau orduko aldi edo zatiki bakoitza hartuko da, ainguratzen edo amarratzen denetik zenbatzen hasita.

Kuota zerga-ordenantzan aurreikusitako karga-tasen arabera kalkulatuko da, Foru Arauak ezarritako tarteen barruan, eta gehienez zergadun bakoitzeko gehienekoa 5 unitatekoa izango da egonaldi jarraitu bakoitzerako. Udal-autonomiaren defentsan hobariak eta aukerako errekarguak aurreikusten dira.

Azkenik, establezimenduetako titularrek udalei informazioa emateko betebeharrak ezartzen dira, zerga behar bezala kudeatu eta biltzeko.

**Iturria:** https://www.bizkaia.eus/eu/web/comunicacion/berriak

# Glosarioa

## INBERTSIO-FUNTSAK (I)

Inbertsio-funtsa: Nortasun juridikorik gabeko ondareak, hainbat inbertitzailek (partaideak) egindako ekarpenek osatuak. Funtsaren administrazioa eta ordezkaritza sozietate kudeatzaile baten eskuetan geratzen dira. Sozietate horrek finantza-aktibo eta -tresnetan inbertitzen ditu ekarpenak, eta finantza-merkatuan duten eboluzioaren arabera, inbertitzaile edo partaideek emaitza positiboak edo negatiboak dituzte. Inbertsio-unitatea partaidetza da.

Funts irekia: Inbertsio kolektiboko erakundea, non partaideak edozein unetan sartu eta irten daitezkeen. Egitura aldakorra du, eta horrek esan nahi du ondarea hazi edo murrizten dela, partaidetzak harpidetuz (erosketa) edo ordainduz (salmenta), eskariaren arabera; partaidetzen kopuruaren igoerak edo jaitsierak ez die gainerako inbertitzaileei eragiten.

Funts kotizatua (ETF- Exchange Traded Fund): Inbertsio kolektiboko erakundea da, eta bere inbertsio-politika balore-multzo edo indize bat erreplikatzean datza. Bere ezaugarri bereizgarria da partaidetzak balioen bigarren mailako balore-merkatuetan (balore-burtsak) negoziatzen direla denbora errealean, akzioekin egiten den moduan. Ohiko inbertsio-funtsek ez bezala, kudeatzaileak ez du partaidetzarik erosten edo saltzen; aitzitik, inbertitzaileak balore-burtsen bidez eskuratu ditzake partaidetzak, akzio bat balitz bezala. Eragiketa hori errazteko, balore-burtsek negoziazio-segmentu berezi bat erabiltzen dute, eta haren bidez, kontratazio-saioan zenbatetsitako likidazio-balio bat kalkulatu eta hedatu daiteke. Likidazio-balioa partaidetza bakoitzaren prezioa da, eta honela kalkulatzen da: funtsaren ondare osoa zati une jakin batean zirkulazioan dauden partaidetzen kopurua.

Metatze-funtsa (edo kapitalizazioko funtsa): Inbertsio-funts horren ezaugarria da lortutako etekinak berrinbertitzen direla; horrela, etekinek funtsaren ondarea handitzen dute, eta, ondorioz, baita partaidetzen likidazio-balioa ere, etekinak partaideen artean banatu beharrean. Espainian ia-ia ohiko inbertsio-funts guztiak mota horretakoak dira.

Banaketa-funtsa: Metatze-funtsean ez bezala, inbertsio-funtsaren modalitate horrek partaideen artean banatzen ditu etekinak, dibidenduen antzera, hau da, partaidetza-kopuruaren proportzioan. Kasu horretan, errenten banaketa egiten den bakoitzean, partaidetzaren likidazio-balioak behera egiten du.

*Iturria*: https://www.cnmv.es/portal/home